

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**364/2019 Foru Agindua, otsailaren 14koa, Ogasun zuzendaria. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortzen zaio EELIF BERRIKUNTZA FUNTSARI (IFZ: V-95-920.310)**

Martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren bidez, Europako epe luzerako zenbait inbertsio funtsen ezaugarriak zehazten dira zerga ondorioetarako, eta aldagetak egiten dira zenbait zergaren foru arauetan (pertsoneko fisikoaren errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, kooperatiben zerga araubidea) eta Arabako zergen foru arau orokorrean. Bada, foru arau horretan ezarri da Europako epe luzerako inbertsio funtsen zerga tratamendua, bai eta Europako arrisku kapitaleko funtsena eta Europako gizarte ekintzailtzeko funtsena ere, eta Arabako Lurralde Historikoaren zerga antolamenduan sartu ditu Europako funts horien bitartez egindako inbertsioa sustatzeko neurriak (hain zuzen ere, funts horien xedea jarduera ekonomikoa garatzeko enpresa kapitalizazioko eta berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketa bultzatzea da).

Bat etorri abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 80. artikuluan xedatutakoarekin, foru arau horren VI. tituluaren V. kapituluaren aurreikusitako araubidea aplikagarri izango zaie Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 Erregelamenduan (EB), Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoan, araututako Europako epe luzerako inbertsio funtsei. Hala ere, foru arau horren 56. artikuluan 4. apartatua ezarritako ehuneko 1eko karga tasa aplikatzeko, honako betekizun hauek ere bete behar dira:

a) Funtsak bere ondarearen ehuneko 95, gutxienez, inbertitu behar du inbertsiorako balio duten aktiboetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamendua, Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak, 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Inbertsiogile batek ere ez du izango ehuneko 15etik gorako partaidetza funtsaren ondarean, eduki ditzakeen zuzeneko eta zeharkako partaidetza guztiak kontuan hartuz, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauak 42. artikuluan xedatutakoaren arabera lotuta dauden pertsona edo entitateenak barne.

Horren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko erakundeetako inbertsiogileen partaidetzak, halakotzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren finantza tresnen merkatuei buruzko eta 2002/92/EE Zuzentaraua eta 2011/61/EB Zuzentaraua aldatzen dituen 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren II. eranskineko I. apartatuaren 1., 2. eta 4. zenbakietan definitutakoak.

Bestalde, aipatutako martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak zenbait zerga pizgarri ezartzen ditu Europako epe luzerako inbertsio funtsen kategorian jakin batzuetan zuzeneko partaidetza duten pertsona fisikoentzat, bai eta erakundeak Europako epe luzerako inbertsio funts horietan partaidetzak eskuratzera bakarrik bideratutako kreditu erakundeetan irekitako kontuetan diru kopuruak gordailutzen dituztenentzat.

Bereziki, aipatutako martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 10. artikuluan xedatzen duenaren arabera, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsatzat joko dira abenduaren 13ko 37/2013 Foru

Arauk, sozietateen gaineko zergarenak, 80. artikuluan xedatutakoa aplikagarri zaien Europako epe luzerako inbertsio funtsak, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Haien helburu bakarra abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauk, sozietateen gaineko zergarenak, 13. artikuluan xedatutakoa aplikatzen zaien entitateek garatutako berrikuntza teknologikoko proiektuak finantzatzea izatea.

Hori dela eta, berrikuntza teknologikoko proiektutzat hartuko dira abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauk, sozietateen gaineko zergarenak, 63. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubidea sortzen duten jardueri dagozkienak, tartean, ibilgetu materialeko eta ukiezineko elementu berrietako inbertsioak (higiezin eta lurretako inbertsioak izan ezik), elementu horiek eskuratzea beharrezkoa bada berrikuntza teknologikoko proiektua garatzeko.

b) Ematen dituzten maileguen zenbateko nominala 600.000 eurotik beherakoa izatea.

c) Ematen dituzten maileguak itzultzeko epea gutxienez bost urtekoa izatea. Gehienez urtebeteko gabealdia ezarri ahalko da.

d) Ematen dituzten maileguen ordainketak otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren, Arabako zergenaren, 26. artikuluan aipatzen den berandutze interesen tasaren ehuneko 75 ez gainditzea, eta parte hartzeko maileguak ez izatea.

e) Maileguak elkar bermatzeko sozietate batek edo kauzio aseguru batez osorik bermatuta egotea.

f) Mailegua ematea abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauk, sozietateen gaineko zergarenak, 64. artikuluko 2. apartatuan aipatzen duen berrikuntza teknologikoko proiektuaren zerga ondorioetarako kalifikazio txostena eskatzeari lotuta egotea.

Berrikuntza teknologikoko proiektuak ibilgetu materialeko eta ukiezineko elementu berrietan egindako inbertsioak barnean hartzen dituenen, letra honek aipagai duen proiektuaren ondorio fiskaletarako kalifikazio txostenak identifikatu egin beharko ditu baita berrikuntza teknologikoko proiektua garatzeko beharrezkoak diren aktiboetako inbertsioak ere.

Artikulu honek aipatzen dituen Europako epe luzerako inbertsio funtsek euren helburua gauzatzeko hartzen dituzten funtsak artikulu honetako a) eta f) bitarteko letretan ezarritako baldintzak betetzen dituzten maileguak emateko erabili beharko dituzte, euren partaideek ekarpena ordaindu eta urtebeteko epean gehienez ere.

Eta martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arau horrek berak 13. artikuluan xedatzen duenez, foru arau horren 10. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta foru arau horren III. tituluko IV. kapituluaren aurreikusitako zerga neurriak aplikatu nahi dituzten Europako funtsek jakinarazpena aurkeztu beharko diote Zerga Administrazioari, eurak merkaturatu baino lehenago edo, bestela, zerga neurri horiek aplikatu nahi dituzten lehen zergaldia hasi aurreko hiru hilabeteetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.

Zerga Administrazioak, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauk 10. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero, kasuan kasuko funtsa berrikuntza bultzatzeko Europako funtsa dela onartuko du, Ogasuneko zuzendariaren ebazpen bidez, eta ebazpen hori argitaratuko da, denek jakin dezaten.

Bestalde, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 11ko 60/2018 Foru Dekretuak, zeinaren bidez garatzen baitira Europako funts batzuen zerga tratamenduaren alderdi batzuk eta berrikuntza bultzatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzea sustatzeko eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko zerga neurriak, prozedura bat ezarri du berrikuntza bultzatzeko Europako funtsen izaera aitortzeko, alegia, funtsaren kudeatzaile den erakundeak eskaera aurkeztu behar dio Ogasun Zuzendaritzari, honako agiri hauekin batera:

a) Komunikazioa aurkezten duen epe luzerako inbertsio funtsaren identifikazioa.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak, Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak, 5. artikuluko 1. apartatuan xedatzen duenarekin bat etorri Europako epe luzerako inbertsio funtsen agintari eskudunari aurkeztutako dokumentazioa.

c) Agintari eskudunak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak, Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak, 6. artikuluan aipatzen duen baimena ematea Europako epe luzerako inbertsio funtsa izateko.

d) Europako epe luzerako inbertsio funtsen kudeatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 80. artikulua 2. apartatuan agintzen dituen betekizunak betetzen direla ziurtatzen duena.

e) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak, Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak, 23. artikuluan aipatzen duen liburuxka (behar denean, funtsezko datuen dokumentua ere bai), eta martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 10. artikuluan ezartzen dituen baldintzak betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta arauz ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Ogasun Zuzendaritzak kasuan kasuko funtsari berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortuko dio ebazpen bidez, zeina ALHAOn argitaratuko baita, eta berrikuntza bultzatzeko Europako funts direla onartutako Europako epe luzerako inbertsio funtsen zerrenda eguneratua sartuko da funts hori. Zerrenda eguneratua nahi duen orok ikusteko moduan dago Arabako Foru Aldundiaren interneteko orrian.

EELIF BERRIKUNTZA FUNTSA (IFZ: V-95-920.310) izeneko Europako epe luzerako inbertsio funtsa kudeatzen duen erakundeak eskaera aurkeztu du Ogasun Zuzendaritzan aipatutako arauen arabera, berrikuntza bultzatzeko Europako funts aitor dadin eskatzeko.

Horregatik guztiagatik, hau

#### EBAZTEN DUT

Lehenengoa. -Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortzea EELIF BERRIKUNTZA FUNTSA (IFZ: V-95-920.310) izeneko Europako epe luzerako inbertsio funtsari.

Bigarrena. -Ebazpen hau « ALHAOn» argitaratuko da, eta berrikuntza sustatzeko Europako funtsaren izaera aitortu zaien Europako epe luzerako inbertsio funtsen zerrenda eguneratua sartuko da. Zerrenda hori nahi duen orok ikusteko moduan dago Arabako Foru Aldundiaren interneteko orrian.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 13a

*Ogasun zuzendaria*  
**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**